

Izena _____

Data _____



Aukeratu erantzun zuzena.

❶ Zer testu mota da irakurri duzuna?

A. Kexa-gutuna da.

B. Oharra da.

C. Iragarkia da.

D. E-posta da.

❷ Nork nori idatzi dio?

- A. Mirentxuk hainbat laguni.
- B. Mirentxuk Igoneri.
- C. Mirentxuk Igoneren gurasoei.
- D. Hainbat lagunek Mirentxuri.

❸ Zer dela-eta dago Mirentxu Igonerekin apur bat haserre?

- A. Bere urtebetetze-jaira gonbidatu ez duelako.
- B. Igonek Mireni ez ziolako bere urtebetetzean ezer oparitu.
- C. Igonek Miren sarritan zirikatzen duelako.
- D. Igonek Ane, Jon eta Asier gonbidatu dituelako.

❹ Zer proposatu die Mirentxuk lagunei?

- A. Mirentxuri opari eder bat erostea denen artean.
- B. Mirentxuri ustekabeko jaia prestatzea.
- C. Mirentxuri gogoraraztea oso astuna dela.
- D. Mirentxurekin eta beste lagunekin zinemara joatea.

❺ Zer osagai ditu e-postak?

- A. Mezua baino ez.
- B. Mezua eta mezuaren gaia.
- C. Igorlearen eta hartzailearen helbideak.
- D. Igorlearen eta hartzailearen helbideak, mezuaren gaia eta mezua.

❻ Zein aukeratuko zenuke hasierako eta bukaerako beste agur moduan?

- A. Lagun agurgarri horiek / Aldez aurretik eskerrak emanaz.
- B. Jaun-andre horiek / Zuen erantzunaren zain ...
- C. Kaixo lagunok, zer moduz? / Adeitasunez
- D. Lagun maite horiek / Mila esker zuen laguntzagatik

❼ Bilatu testuan esanahi hauei dagozkien hitzak:

- a) Gauzak freskotan gordetzeko egokitua den etxe azpiko tokia ⇒ _____
- b) Pertsona bati ekitaldi batetara joateko bidaltzen zaion mezua edo deia ⇒ _____
- c) Zirikatzea edo adarra jotzea gustuko duen pertsona ⇒ _____
- d) Norbaiti egindako kaltea ordainarazteko itzultzen zaion gaitza edo kaltea ⇒ _____
- e) Uste ez zela, bat-batean gertatzen den gauza atsegina edo ezatsegina ⇒ _____